LANDA ESPARRUA URBANIZATZEA: OTXARKOAGA

1950eko hamarkadatik, herri kopuru jakin baten urbanizatutako zonaldea modu iraunkorrean zabaldu da. Hedapen hura, batez ere, ibaietako ibarretan eman da, normalean balio agronomiko handia dutelako eta malda eskasak izateagatik bertan erraz landatu daitekeelako. Bestalde, prozesu hau nolabait maldatsuak ziren zonaldeetan ere eman da, ibairik ez zegoen zonaldetan.

1950 eta 1970eko hamarkaden artean, hiriak zabaldu ziren industrializazioaren eraginez eta hedatzen ari zen industria sektore baten eskakizunak asetzera joaten zen biztanleriari etxebizitza hornitzeko premiari aurre egin behar zitzaiolako, eta baita industria establezimenduen beraien lurzoru premiei ere. Lan eskaintzak, atzerritarrak erakarri ez ezik, baserrietako ekonomia jarduera ere pixkanaka desagertzea eragin zuen. Joera hori gaurko egunetara arte iritsi da, baina modu arinagoan eta inguruabar eta era desberdinetan; baina batez ere Herri Administrazioaren kontrol gehiagorekin.

Bilboko Otxarkoaga auzoa jo daiteke lan esparrua urbanizatzearen adibidetzat (besteak beste).

Zonalde honek, Bilboko alde zaharretik bi kilometrotara kokatuta, 1945ean (eta baita 1955ean ere) tradiziozko landa jarduera garatzen zuen, lehenengo "Amerikar" Hegaldiaren ortoargazkian ikus daitekeen bezala.

1950eko, Bilboko inguruko mendietan txabolismo prozesu garrantzitsu bat eman zen, non gizarte, ekonomia eta hirigintza baldintzak oso urriak izan ziren. Haren garrantzia ikusirik, hirigintza agintariek uste izan zuten hainbat jarduera nahita nahiez burutu behar zirela, esaterako, "Bizkaiko Gizarte Premiazko Plana". Hura, "Otxarkoagako Zuzenduriko Herria" izenekoaren bidez eraiki zen, Banderas mendian, San José, Uretamendi, Los Caños, eta abar bezalako lekuetan zeuden herrixka desberdinak erradikatzeko helburuarekin. Hala ere, horietako eraikuntza gehienak sendoak ziren, zenbait kasutan, solairu bat baino gehiagokoak, baina ilegalak, gaizki kokatuta eta oinarrizko azpiegiturarik eta zerbitzurik gabekoak.

1959an eraikuntza lanei ekin egin zitzaien eta 14 arkitekto gazteri enkargatu zitzaien txabola horien biztanleak nahita nahiez hartzea helburu zuten eraikinen proiektuak idaztea. Biztanle horien etxebizitza zaharrak eraitsi egin ziren etxebizitza berriak entregatu ondoren.


Guztira, 3.672 etxebizitza eraiki ziren, 114 bloketan, horietako batzuk 15 solairukoak. Etxebizitzak alokairu erregimenean entregatzeko eraiki ziren, eta euren azalerak 50 m2 inguru zituen. 1963an, Etxebizitzaren Erakunde Nazional zaharrak industrialdeko jabetza Bilboko Udalari entregatu zion.

Eraikuntzaren kalitatea oso apala izan zen eta hasiera batean existitzen ez zen urbanizazioa oso konplikatua izan zen, lurraldea oso maldatsua zelako. Horrek zenbait aldarrikapen mugimendu sozial eragin zuen, eta hainbat urteren ondoren, arazo gehienak konpondu zituzten jarduera desberdinak exekutatzea lortu zuten.

Gehiago jakiteko: El poblado dirigido de Otxarkoaga... / Luis Bilbao Larrondo. - Bilbao : Ayuntamiento, 2008.



Otxarkoagan obretan instalatutako panela.



Bilbo inguruetako landa eremua. Bertan, Otxarkoaga auzoa ezarriko da Ortoargazkia 1945-46.




Ortoargazkia 1945-46 “Amerikar Hegaldia, A bilduma”. Iturria Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

UTM 30N ETRS89 X: 507911 m Y: 4789570 m.

Otxarkoaga (Bilbo) landa eremu gisa. Ez da azalera laua, baizik eta ubide xumeak igarotzen diren haran txiki batzuk hartzen ditu barne.





Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Otxarkoaga gaur egun. Eraikuntza dentsitate handia eta eraikin mota desberdinak ikusten dira, etxadi itxia alde batera utzita.

Koloredun sektorea aipatutako “Otxarkoagako Industrialdeko” jarduerari dagokio.